

GAIZKI ERRANKA

Ustekabea



SANTI LEONÉ
@ororostorm

"Pazientea haurdun gelditu eta haur batez erditu zen ustekabea". Norbaitek –gizon batek, pentsatzen dut–, bulego batean, lerro-buru hori idatzi zuen, naski geratutakoa egoki deskribatzen zuelakoan, egoera begetatiboan hamar urte daramatzan emazteki bati buruz. Bertze bulego batean, bertze norbaitek ez zuen hori publikatzeko oztoporik ikusi. Haurdun gelditu. Ustekabea erditu.

Hori baino lehen, bederatzi hilabetez, ospitale bateko arduradunek ezikusia egin zioten hamar urte egoera begetatiboan daramatzan emazteki horri egunetik egunera sabela puzten zion biziari, akaso bizi hura berez itzali eta erdibidean geldituriko fetua aise, ustekaberik gabe, desagerrarazten ahalko zutelako itxaropen sekretuarekin. Bederatzi hilabetez ondorio logiko bakarra ateratzeari uko egin zioten, zeren hori baino lehen, ospitale hartako gizon batek –edo batzuek– erabaki zuen –edo zuten– egoera begetatiboan zegoen emazteki hura ez zela zaintza behar eta merezi zuen gizaki bat, bere –edo beren– gozamenerako erabiltzen ahal zuen –edo zuten– haragi puska bat baizik. Auskalo noiz erabaki zuten hori. Auskalo zenbatek.

Orain, bertze bulego batean, bertze gizon batek idatzi du –eta egunkari batek argitara eman du– polizia ikertzen ari dela hamar urte egoera begetatiboan daramatzan emazteki hori bortxatua izan ote den. Eta makurrena da beharbada egia dela; alegia, polizia ez dela ikertzen ari nork bortxatu duen, bortxatua izen ote den baizik, hamar urte egoera begetatiboan daramatzan emazteki bat haurdun gelditzeko bertze biderik balitz bezala.

Bortxatu zutenak, ezikusiarena egin zutenak, egoera banalizatu dutenak, auskalo zer eta nola ikertzen ari direnak. Nik ez dakit zehazki zer den bortxaketaren kultura, baina pentsatzen dut, izatekotan, horrelako zer edo zer izan behar duela. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



"EZ DA DERRIGORREZKOA EUSKARAREN BALORAZIOA TUTERAKO LANPOSTUETARAKO"

ENEKO LARRARTE, TUTERAKO ALKATEA

Tuteran udaltzain lanpostua lortzeko oposizio-lehiaketan, alemana, frantsesa eta ingelesa jakiteak bost puntuko balioa izan zuen, euskararen ezagutza ordea ez zen baloratu. Herriko Defendatzaileak adierazi dio Tuterako Udalarri gutxienez euskarak atzerriko hizkuntzen balio berbera izan behar duela, baina alkatearentzat (Izquierda-Ezkerra), "euskara beste hizkuntza batzuk baino gutxiago baloratu izana ez da gaiaren oinarria. Soilik, inolako betebeharririk ez dagoenez, ez da baloratu".

Tuterako CUP taldeak gogor salatu du alkatearen jarrera. **2019/01/07**

